

Udaleko hezkuntza-kontseiluen rola toki-erakundeen esparruan 17/2023 Hezkuntza Legearen babesean

Maite Zelaia Garagarza, Dunia Marinas Suárez
Zuzenbide Konstituzionaleko irakasleak (EHU) eta Europagune Ikerketa Taldeko kideak

17/2023 Legean udaleko hezkuntza-kontseiluen figura juridiko berria aurreikusten da, eta artikulua honen xedea, hain zuzen, figura horren azterketa sistematikoa egitea da, haren funtzioa eta eginkizunak ulertzeko asmoz. Horren harira, lehenik eta behin, legearen oinarri juridikoak aztertuko dira, gero kontseilu horiek kokatzen diren testuinguru instituzional eta normatiboa zehazteko. Ondoren, udaleko hezkuntza-kontseiluen konfigurazioa aztertuko da, arreta berezia jarriz haien izaera juridikoari, osaera organikoari eta esleitutako eskumen-eremuari. Bukatzeko, kontseilu horien eraginkortasun potentziala balioetsiko da, bereziki epe labur eta ertainera udal-mailan gobernantza-eredu berri gisa eman dezaketek ekarpena kontuan hartuta hezkuntza-proiektu komunitarioen sustapenean.

GAKO-HITZAK: 17/2023 Legea · Hezkuntza Legea · Udaleko hezkuntza-kontseilua · Hezkuntza-proiektu komunitarioa.

The role of Municipal Education Councils within the framework of local authorities under Law 17/2003 on Education

Law 17/2023 considers the novel legal figure of the Municipal Education Councils, and the purpose of this article is precisely to carry out a systematic analysis of this figure, to understand its function and role. Within this framework, the legal foundations of the law will be addressed first, with the purpose of delimiting the institutional and regulatory context in which these councils are inscribed. Next, the institutional configuration of the municipal education councils will be analyzed, paying special attention to their legal nature, their organizational structure and the scope of competencies assigned to them. Finally, their potential shall be evaluated, especially considering the contribution they could make, in the short and medium term, as a new model of governance at the municipal level in the promotion of community educational projects.

KEY WORDS: Law 17/2023 · Law on Education · Municipal Education Council · Community Education Project.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.5542>

Jasotze-data: 2025-04-27 **Onartze-data:** 2025-05-07

1. Sarrera¹

XXI. mendeko aldaketekin bitzitza publikoa eraldatzen ari da eta erronka berriak planteatzen zaizkie bai estatu-mailako botere publikoei, bai tokiko botere publikoei ere. Maila anitzeko botere publiko horiek erantzun estrategiko zein normatiboak prestatu beharrean leudeke aldaketok herritarrengan izan dezaketen eragina (negatiboa denean) arintzeko. Aldaketa-prozesu hori hainbat faktorek bultzatzen dute eta, artikulu honi dagokionez, globalizazioa eta immigrazioa nabarmentzen dira. Globalizazioak herrialdeen eta kulturen arteko distantziak moztu ditu, ideien eta ohituren trukea erraztuz, baina baita biztanleriaren sektore desberdinei eragiten dieten desberdintasun ekonomiko eta sozialak indartuz. Bestalde, immigrazioak areagotu egin du gure udalerrietako kultura-aniztasuna, are eta indartsuagoa udalerrria handiagoa den heinean. Fenomeno horrek gizarte-integrazioarekin eta bizikidetzarekin lotutako erronkak planteatzen ditu, baina, era berean, ikuspegi berriei eta elkar aberasteko modu berriei ere atea irekitzen die, hezkuntzaren bidez irits daitekeen aberaste bat, kultura- eta hizkuntza-integrazioa eta gizarte-kohesioa sustatuz. Eraldatze-prozesu horretan, hezkuntza funtsezkoa da, kontzientzia sortzeko, eta pertsoneri ezagutza emateko zein balioak transmititzeko espazio gisa balio ukaezina duelako.

Hezkuntzaren rol hori marko lurraldetar eta juridikora eramaten dugun unean, elementu gehigarri bati erreparatu beharrean aurkituko ginateke: lurralde-antolaketa deszentralizatu duen estatu batean kokatuta egoteak ekar ditzakeen aukerei, alegia. Beste era batera esanda, hezkuntzaren arloan, maila anitzeko lurralde-egituretatik eratorritako ordenamendu juridikoei lotu behar gatzazkie, guztien interpretazio sistemiko bat eginaz. Testuinguru honetan, Espainiako Estatuaren lurralde-egitura deszentralizatuak aukera ematen die autonomia-erkidegoei, gure kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoari (aurrerantzean, EAE), hezkuntzari buruzko alderdi asko arautzeko, betiere Espainiako Konstituzioak ezarritako esparru juridikoaren barruan. Izan ere, ezin baita baztertu oinarrizko eskubide baten inguruko alderdiak izango direla aztergai izango ditugunak, oinarrizko eskubidearen muina bera ez bada ere. Baina ez hori bakarrik, Europar (bai Europako Kontseiluaren mailan eta baita Europar Batasunean ere) hezkuntzaren inguruan ekoizitako arauak ere (eta horien interpretazioan emaniko jurisprudentziak) eragin juridikoa dutelako EAEn.

Eszenatoki horretan gaudelarik, artikulu honen xedea, aipaturiko eraikuntza juridikoaren azalpena eman ostean, 17/2023 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzkoan (aurrerantzean, 17/2023 Legea)², jasotako figura berri

1. Artikulu hau ondorengo proiektuen babesean garatu da: UdalHez Proiektua «Udal Hezkuntza-Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoan: gako juridiko, pedagogiko eta komunitarioak» (24/27 Ebazpena); «Populismo y poder judicial: los retos para el Estado constitucional de Derecho» Ikerketa Proiektua PID2021-128335NB-100/MICIU/AEI/10.13039/501100011033/FEDER; «La aplicación eficaz de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea: el respeto de los principios y valores europeos» Ikerketa Proiektua PRESP07023-AEI-PID2022-136707NB-100/MICIU/AEI/10.13039/501100011033, eta «Oinarrizko eskubideak eta Europar Batasuna. Egungo eta etorkizuneko erronkak eskubideen babesean/ Derechos fundamentales y Unión Europea. Retos actuales y futuros en la tutela de los derechos» Kontsolidaturiko Ikerketa Taldea GIC 21/50-IT 1455-22, Eusko Jaurlaritzak finantzaturikoa.

2. 17/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena, EHAA 3. zk., 2024ko urtarrilaren 4koa.

bat aztertzea da: udaleko hezkuntza-kontseiluak. Horretarako, lehenik eta behin, 17/2023 Legearen oinarri juridikoak aztertuko dira, ondoren udaleko hezkuntza-kontseiluen diseinuaren analisiari heltzeko, batez ere, haien izaera, osaera eta eskuduntzetan begirada jarritz; azken jomuga, udaleko hezkuntza-kontseiluek epe motz edo ertainera begira aportatu dezaketenari hurbilketa bat egitea izango da.

2. Hezkuntzaren arauzko *statu quo*-ari hurbilketa

Esan dugu, hezkuntzaren gaia, erregulazio-materia gisa, maila anitzeko araudi juridikoetan jasotzen dela, Europako Kontseiluaren mailatik hasi, Europar Batasunaren markotik pasa eta estatu barruko legedira iritsiz. Estatu barruan, gainera, hezkuntza eta bere inguruabarrak, estatu-mailako araudian jasotzeaz gain, autonomia-erkidegoen mailan ere xedatzen dira. Alta, nahitaezko eta etengabeko lankidetzeta eta koordinazioa premiazkoak dira araudi anitzen joskera egiterakoan. Are gehiago, artikulua honen objektu diren udaleko hezkuntza-kontseiluei gagozkielarik, beste maila bat gehiago ere jaitsi beharrean geundeke, izan ere, toki-entitateek EAE mailan onarturiko legearen exekuzioan aprobata ditzaketen udal-mailako arauak ere zeresana emango baitigitute.

2.1. Europako araudia

Europako Kontseiluaren eremuan, hezkuntzarako eskubidea, instrukziorako eskubide gisa jasotzen da Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren (aurrerantzean, GEEH)³ Protokolo Gehigarriaren 2. artikuluan, zera xedatuz: «Instrukziorako eskubidea: Inori ezin zaio ukatu instrukziorako eskubidea. Estatuak, hezkuntzan eta irakaskuntzan bere gain hartzen dituen funtzioak betez, gurasoek hezkuntza eta irakaskuntza hori beren erlijio eta filosofia sinesteen arabera ziurtatzeko duten eskubidea errespetatuko du». Instrukziorako eskubidea esaten bazaio ere, edukiari dagokionez, eremu unibertsaleko nazioarteko tratatuetan eta estatu askotako konstituzioetan aitorturiko hezkuntzarako eskubidetik ez da bereizten⁴, nahiz eta GEEHren kasuan formulazio negatiboa erabiltzen den (Pasquali, 2013). Xedapen honetan oinarritzko bi elementu finkatzen dira. Lehenik eta behin, instrukziorako eskubidea oinarritzko izaerarekin aitortzen da (hezkuntzarako eskubide gisa ulertu beharko litzatekeena) eta, bigarrenik, estatuak hezkuntzarako eskubidea bermatzeko duten betebeharra, gurasoek dituzten erlijio-sinesmen eta sinesmen filosofikoen arabera (Meix, 2014). Hortaz, estatuaren betebeharra izango da, jardunbide positiboarekin eskubidea bermatzeaz gain, gurasoen askatasuna errespetatuz gauzatzea berme hori, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (aurrerantzean, GEEA) jurisprudentziak jaso duenez⁵.

3. Europako Kontseilua, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren Protokolo Gehigarria, EBO 11. zk., 1991ko urtarrilaren 12koa.

4. Bereziki, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 26. artikulua, 1966ko eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruzko Hitzarmenaren 13. eta 14. artikulua eta 1989ko Nazio Batuen Erakundearen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 28. eta 29. artikulua.

5. GEEAren epaia, 1982ko otsailaren 25ekoa, *Campbell eta Cosans vs Erresuma Batua*. Kasu hau gurasoek ikastetxeek emandako zigor fisikoak gaitzesteari buruzkoa da. Estatuak horrelako zigorrak desagerrarazteko, plangintzetatik haratago, jokaera positiboa eraman behar zuela adierazi zuen auzitegiak. Beraz, horrelako zigorrak ezingo litzateke gorpuztu gurasoak ados egon ezean.

Estatuek jarduera positiboa izan behar dutelako agindua gurasoen eskubideari buruzko kasuetan lehenetsi da batez ere, baina, zenbaitzuetan, GEEAk kontsideratu duenez, hezkuntzarako eskubideak estatuaren ekintza positibo zehatzagoa ere behar duela aitortu da; izan ere, GEEHren estatu sinatzaileen ekintza positiboa funtsezkoa da hezkuntzaren eraginkortasuna bermatzeko eta eskubide horren funtsezko edukia ez murrizteko. Hala, GEEAren arabera, jarduera hori ez da estatuaren diru-betebeharrei buruzkoa (edo soilik horri buruzkoa), baizik eta estatuak duten arautzeko betebeharreraino luzatuko litzateke (Obey eta White, 2006; Lasagabaster eta Urrutia, 2009).

Europako Kontseiluaren esparruan, aipaturiko hezkuntzarako eskubidearen aitortza puruari gehitu beharrekoa, GEEHren 14. artikulua litzateke, diskriminazioaren debekuari buruzkoa, alegia: «Diskriminazioaren debekua: Hitzarmen honetan aitortutako eskubideak eta askatasunak diskriminaziorik gabe gozatuko direla bermatu behar da, bereziki, sexua, arraza, kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazional bateko kide izatea, aberastasunak, jaiotzak edo beste edozerk eragin dezakeena». Bertan xedatzen diren alderdi nagusiak honoko hauek lirateke. Batetik, diskriminazio-zantzuaren detekziorako betebehar bat ezartzen da, diskriminazio hori zuzena den kasuetarako, baina bereziki zeharkakoa den supostuetarako. Eta, bestetik, detekzioak konponbiderako neurriak jartzearen ekintza dakar ondoren, ekintza hori estatuaren jardunbide positibo gisa ulertu beharko litzatekeelarik, eta betebehar araugilearekin identifika daitekeena, baita GEEHren Protokolo Gehigarriaren 2. artikulua esparruan ere⁶.

Azkenik, Hizkuntza Erregional eta Gutxituei buruzko Europako Gutuna⁷ aipatu behar dugu; izan ere, beraren 7.3 eta 8. artikuluek garrantzi handia dute hizkuntzen aniztasuna eta horien errespetua sustatzeko hezkuntzaren esparruari lotetsitako eremuan. 7.3 artikuluan, herrialdeek konpromisoa hartzen dute elkar-ulertze egokia bultzatzeko, eta horrek hizkuntzen artean errespetua, ulermena eta tolerantzia sustatzea dakar, bereziki eskualdeetako hizkuntzak edo gutxitutako egoeran daudenak aintzat hartuz. Erabilera arruntetik haratago, hezkuntza eta prestakuntzaren esparruan ere lan egiteko beharra erakusten da eta komunikabideei ere keinuak egitea galdutako zaie. Horren guztiaren bidez, hizkuntzen arteko desberdintasunak gainditzea eta haien egonkortasuna ziurtatzea bilatzen da, horrek kultura eta hizkuntza gutxitu horien biziraupena bermatuz. 8. artikulua, berriz, zehatzago, hezkuntzaren arloan jartzen du arreta, eta hizkuntza gutxituetan ikasteko bermeak ematea planteatzen du. Horrek ez du esan nahi ikaskuntza-prozesuak erraztea dela egiteko bakarra. Haratago doa: herritar guztien eskubideak bermatzen direla aitortzen da hizkuntza gutxituak erabiltzeko, ikasteko eta beraietan hezteko (De Groot, 2024).

6. Bi arauen uztarketa egin izan du GEEAk kasu anitzetan, besteak beste, GEEAren epaia, 2006ko otsailaren 7koa (Sala Handiaren epaia 2007ko azaroaren 13koa), *D.H. eta beste batzuk vs Txekiar Errepublika*; GEEAren epaia, 2008ko ekainaren 5koa, *Sampanis eta beste batzuk vs Grezia*; GEEAren (Sala Handia) epaia, 2010eko martxoaren 16koa, *Orsus eta beste batzuk vs Kroazia*, eta GEEAren epaia, 2022ko abenduaren 13koa, *Elmazova eta beste batzuk vs Ipar Mazedonia*.

7. Europako Kontseilua, Hizkuntza Erregional eta Gutxituei buruzko Europako Gutuna, 1992ko azaroaren 5ean onartua, *European Treaty Series* 148. zk.

Gutun horrek, beraz, hizkuntza gutxituak eta eskualdeko hizkuntzak babesteko eta haien erabilera bultzatzeko eskubideak eta neurriak azpimarratzen ditu, eta herrialdeei zeharkako konpromisoa eskatzen die, elkar-ulertze eta hizkuntza-aniztasunaren inguruan. Horrek herrialdeen politiketan eragina izan dezake, eta bertako hizkuntza-komunitateak aniztasun eta errespetu handiagoa izatea ahalbidetuko du (Perea, 2024). Betebehar hori hezkuntzaren esparrura ekarriz, hizkuntza gutxituak hezkuntzaren arloan babestea eta sustatzea funtsezko urratsa da aniztasun linguistikoa zaintzeko. Hezkuntza-sistemek hizkuntza horiek integrazio-eta berdintasun-irizpideetan oinarrituta landu behar dituzte, eta ez bakarrik hizkuntza gutxituen erabilera bultzatu, baizik eta ikasleei beren identitate linguistikoan eta kulturean harrotasunez hezteko aukera eman (Palacin, 2017). Horrek, aldi berean, gizartean, hizkuntza eta kultura gutxituak ezagutzea eta errespetatzea sustatzen du, tolerantzia eta aniztasunaren balioak indartuz.

Europar Batasunaren (aurrerantzean, EB) eremura eramanez, abiapuntuan dugun lehendabiziko erreferentzia esanguratsuena, EBko erakundeek hezkuntzaren arloan duten eskumen-maila urria litzateke. Zehazki, eskumen gutxi horiek Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (aurrerantzean, EBFT)⁸ 6. eta 165. artikuluetan arautzen dira. 165. artikulua lehengo paragrafoa lankidetzat sustatzeari buruzkoa da, eta, beharrezkoa den neurrian, estatuen ekintza osatzeari buruzkoa (hezkuntza, eskuduntza osagarritzat aitortuz), horrela, proportzionaltasun-eta subsidiarioritasun-printzipioen eragina islatuz⁹. Bere aldetik, EBFTren 6. artikulua xedatzen duenez, EBren eremuan, hezkuntza laguntza-, koordinazio- eta osagarri-izaera duen eskumena da, eta, beraz, EBk hartutako neurriak ez dira lehenesten, eta ez dute baztertzeko estatuen jarduna. Ondorioz, hezkuntzaren arloan, EBk ez dauka estatuen legedia harmonizatzeko ahalmenik, hau da, europar erakundeek harturiko neurriek (sustapen-neurriak eta gomendioak izango dira gehienetan, 165.4 artikulua xedatzen duenaren arabera) «ezingo dute estatu kideetako legezko eta erregelamenduzko xedapenen inolako harmonizaziorik ekarri» (Sarmiento, 2020). Hala ere, estatuak hezkuntzaren eremuan duten eskumen osoaren kontrapisu gisa, 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburuen harira, Europar Batasunak laugarren helburua den kalitatezko hezkuntzarekiko erakutsitako konpromisoak europar erakundearen rola indartzen duela esan genezake (Boeren, 2019; Castillo, Hernandez-Castilla eta Martinez, 2024).

Hezkuntzaren gaiari modu orokorrean erreparatzen badiogu, bada, EBren mailan, oinarritzeko eskubideen aitortzaren inguruko arau nagusi bat nahitaez ahotan hartu beharrekoa: Europar Batasuneko Oinarritzeko Eskubideen Gutunari (aurrerantzean, EBOEG)¹⁰ buruz ari gara. Beronen, 14. artikulua gogora ekarri beharrekoa da: «1. Pertsona orok du hezkuntzarako eskubidea, eta lanbide-heziketa eta etengabeko prestakuntza jasotzekoa. 2. Eskubide horrek barne hartzen du derrigorrezko

8. Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatu, DOUE 2016/C 202/01.

9. EBFTren 165.1 artikulua esanetan, «Batasunak kalitatezko hezkuntza garatzen lagunduko du, estatu kideen arteko lankidetzat sustatuz, eta, premiazkoa izanez gero, estatuon ekintza bultzatuz eta osatuz, betiere estatuen erantzukizunak errespetatuz irakaskuntzaren edukiei eta hezkuntza-sistemaren antolamenduari dagokienez, eta kultura- eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuz [...]».

10. Europar Batasuneko Oinarritzeko Eskubideen Gutuna, DOUE 2016/C 202/02.

hezkuntza doan jasotzeko ahalmena. 3. Errespetatu egiten dira, jarduera arautzen duten lege nazionalekin bat etorritik, ikastetxeak sortzeko askatasuna, printzipio demokratikoak errespetatuz, bai eta gurasoek beren seme-alaben hezkuntza eta irakaskuntza bermatzeko duten eskubidea ere, beren sinesmen erlijioso, filosofiko eta pedagogikoekin bat etorritik». Arau horretan, nabarmendu behar diren bi ideia nagusi leudeke: bata, hezkuntzarako eskubidea bera, eta, bestea, eskubide hori nola bermatzen den. Bertan zehazten da pertsona orok hezkuntzarako eskubidea duela, eta horrek hainbat dimentsio ditu, bereziki, derrigorotasuna eta doakotasuna.

Lehenik eta behin, hezkuntzarako eskubidea orokorra eta unibertsala delako printzipioa azaltzen du. Pertsona guztiak, adin eta egoera sozioekonomiko ezberdinak dituztenak izanda ere, hezkuntza jasotzeko eskubidea dute, eta, gainera, lanbide-heziketa eta prestakuntza etengabea jasotzea ere eskubidea da. Honek guztiak hezkuntzaren garrantzia indartzen du eta herritarren garapen pertsonala eta profesionala sustatzen ditu. Bigarrenik, derrigorrezko hezkuntza doan jasotzeko aukera ere ematen du. Horrekin, oinarrizko hezkuntza berezkoa eta eskuragarria izatea ziurtatuko litzateke eta, era berean, gizartearen oinarrizko kohesioa bermatzeko baliabide bilakatuko litzateke. Hori guztia, legearen arabera eta gurasoen eskubideak errespetatuz egin beharko da, gurasoek, beren sinesmen erlijioso, filosofiko eta pedagogikoekin bat etorritik, hezkuntza-prozesuaren barruan erabakiak hartzeko eskubidea dutelarik (Alvarez, 2012). Finean, testuaren interpretazioak hezkuntzarako eskubidearen garrantzia azpimarratu beharrera garamatza, eta gainera, gizarte demokratiko baten oinarrizko zutabe gisa kokatuz hezkuntzaren eta prestakuntzaren eskuragarritasuna eta kalitatea.

2.2. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen berezitasuna: estatuko araudia eta araudi autonomikoa

Hezkuntzarako eskubidea, oinarrizko eskubide gisa jasotzen da Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluan, non herritar guztien hezkuntzarako eskubidea bermatzen den eta, horrez gain, gurasoek beren seme-alaben hezkuntza aukeratzeko eskubidea dutela aitortzen den. Hezkuntzarako eskubidea ez da soilik etorkizuneko pertsonen garapen profesionala sustatzen duen eskubide bat, baizik eta gizartearen kohesioan eta demokrazia osatzen duten oinarrizko balioetan oinarritutako eskubide bat ere bada, Europan jatorria duten arauetatik ondorioztatu ahal izan dugun bezala. Horregatik, hezkuntza ezin da beste eskubide batzuetatik bereizi, eta gizartearen eta komunitatearen egitura sendotzeko funtsezko tresna da (Cotino, 2012; Alaez, 2024).

Hezkuntza, oinarrizko eskubideen kategorian sartzeaz gain, Espainiako Konstituzioaren eskumen-banaketaren objektu ere bada. Estatuaren eta autonomia-erkidegoen eskumenen banaketaren ardatza, gai honetan, Konstituzioaren 149.1.30 artikulua litzateke, non estatuak hezkuntzaren arloko eskumen eskusiboa duela aitortzen den, baina autonomia-erkidegoei eskumen batzuk transferitzen zaizkiela ere onartuz (Gonzalez, 2024).

Zehazki, EAeren kasuan, Euskal Autonomia Estatutuko 16. artikuluan xedatzen denez, Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarrian jasotzen dena aplikatzeko, irakaskuntza, bere zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, EAeren eskumenpekoa izango da. Betiere, Konstituzioaren 27. artikulua, berau garatuko duten lege organikoek eta Konstituzioaren 149.1.30. artikulua Estatuari ematen dizkieten ahalmenei eta guztia bermatzeko behar den goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe. Hortaz, Konstituzioaren eta Euskal Autonomia Estatutuaren irakurketa bateratu batean, laburbilduz, Estatuaren eskumen eksklusiboak dira hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorra ezartzea, gutxieneko irakaskuntzak zehaztea, titulu akademikoak eta lanbide-tituluak lortzeko, emateko eta homologatzeko baldintzak arautzea, Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarritzko arauak ezartzea (hezkuntzarako oinarritzko eskubidearen garapena eta espainiar guztien berdintasuna bermatzeko), eta, azkenik, hezkuntza-sistemaren goi-ikuskaritza, legeen betearazpena bermatzeko.

Espainiako Konstituzioa eta Euskal Autonomia Estatutuak marraztutako eszenatoki honetan, 13/1988 Legea, urriaren 28koa, Euskadiko eskola-kontseiluei buruzkoa (aurrerantzean, 13/1988 Legea)¹¹ indarrean sartuko da, sei urte aurretik 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeakoa (aurrerantzean, 10/1982 Legea)¹² ere indarrean zegoelarik. 13/1988 Legearen edukia hizpide izango dugu datozen orrietan egungo 17/2023 Legearekin batera udaleko hezkuntza-kontseiluen diseinuan zeresana izango baitu. Bere aldetik, 10/1982 Legearen ekarpena ezinbestekoa izango da, bigarren kapitulu osoa eskaintzen baitio euskararen erabilerari irakaskuntzan. Euskal Autonomia Estatutuaren 6. artikulua (Espainiako Konstituzioaren 3. artikulutik eratorria) ezartzen duen euskararen ofizialtasuna oinarritzat hartuta, 10/1982 Legea, euskararen normalizazio-prozesua sustatzeko oinarritzko tresna juridiko bihurtuko da. Horren aurrean, euskararen biziberritze-prozesuan funtsezkoa izan da euskal hezkuntzak izan duen rola hitun berriak sortzeko orduan. 10/1982 Legea indarrean jarri zenetik, hezkuntza-sistemak, euskara belaunaldi berrien hizkuntza gisa sustatzeko helburu nagusia izan du, normalizazio-prozesua indartuz eta hizkuntzaren etorkizuna bermatzeko ezinbesteko zutabe bihurtuz. Halere, ezin da ukatu hezkuntza-sistemaren barnean eraikitako hizkuntza-ereduek zeresana eman dutela hasieratik gaurdaino (Urrutia, 2006; Milian i Massana, 2007).

Denborazko *iter* bati jarraituz, 1992an Euskal Hezkuntza Itunaren bidez etorkizuneko euskal hezkuntza-sistemaren oinarriak finkatu ziren eragile politiko eta sozial nagusien artean, sistemaren hobetzea eta modernizatzea jomugan izanik. Itun horrek, bereziki, hezkuntzaren kalitatearen hobetzea, irakaskuntzan euskararen presentzia eta erabilera indartzea, oinarri sozial eta politiko zabalez jantzitako erabakiak hartzea eta hezkuntza inklusiboa sustatzea izango ditu helburu zehatz modura. Akordio horren ondorioz onartuko dira, besteak beste, Euskal Eskola

11. 13/1988 Legea, urriaren 28koa, Euskadiko Eskola-Kontseiluei buruzkoa, EHAA 220. zk., 1988ko azaroaren 23koa.

12. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeakoa, EHAA 160. zk., 1982ko abenduaren 16koa.

Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legea (aurrerantzean, 1/1993 Legea)¹³ eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legea¹⁴.

1/1993 Legea hiru hamarkadaz egon da indarrean, eta tarte horretan, gizartean nahiz hezkuntza-eremuan, aldaketa sakonak gertatu dira (Iztueta, 2003). Arau horrek, estatuaren oinarriko legediaren eta bestelako murrizketen baitan egon arren, hezkuntza-sistema irekiagoa, pluralagoa eta parte-hartzaileagoa garatzeko aukera eman du, eta, aldi berean, euskara hezkuntza-sistemaren funtsezko ardatz gisa indartzeko bidea ireki du. Hala eta guztiz ere, azken urteetako eraldaketa sozialek hainbat erronka berri sorrarazi dituzte eta, horiei aurre egiteko, beharrezkoa da hezkuntza-politikan neurri eta tresna berriak ezartzea.

Testuinguru horretan, 17/2023 Legea onartzen da, 2024ko otsailaren 4an indarrean sartu zena. Lege horren helburua da EAEko hezkuntza-sistema eraldatzeko oinarriak ezartzea, euskal gizartearen beharrianetara egokitzeko. 17/2023 Legeak, aurreko 1/1993 Legearekin alderatuta, ez ditu soilik hezkuntza publikoa eta, bereziki, titulartasun publikoko hezkuntza-zentroak arautzen, baizik eta ikuspegi holistikoagoa hartzen du, euskal hezkuntza-sistemaren erregulazio integral baten bidez. Euskal hezkuntza-sistemaren erregulazio integrala proposatzen du, eta, horri esker, legearen printzipio eta arau nagusiak diru-funts publikoekin finantzatzeko ikastetxe guztietara zabaldu ahal izango dira. Halaber, ikastetxe pribatuak ere kontuan hartzen ditu, euskal hezkuntza-sistemaren osotasuna eta koherentzia bermatzeko.

Ondorengo atalean aztertuko dugu nola arautzen dituen 17/2023 Legeak artikulua honen objektu diren udaleko hezkuntza-kontseiluen inguruabarrak, lege horrek uzten dituen hutsune juridikoak zein arauri erreparatuz bete beharko liratekeen baloratzuz.

3. Udaleko hezkuntza-kontseiluen diseinua

3.1. Oinarri juridikoa: 17/2023 Legea eta garapenik eza

EAEko hezkuntza-sistemak ohikoak izan dituen balioak dira 2023ko legeak berresten dituenak, aurretik Hezkuntza akordioan adosturikoen bidetik (Bilbatua, 2022). Bizikidetzaren oinarrian izanik, eskola inklusibo baten eremuan kokatzen da, non ikasle guztiek izango baitute kalitatezko hezkuntza eskuratzeko aukera eta, aldi berean, bizitzarako beharrezko konpetentziak garatzeko bideen bermea. Balio horiek hiru ardatzetan laburbiltzen dira: izatea, jakitea eta elkarrekin bizitzea. Lehen ardatzak, izateak, pentsamendu autonomoa garatzea du helburu. Bigarren ardatzak, jakiteak, ezagutza sortu eta erabiltzeko beharra azpimarratzen du, gizarteak dituen erronka nagusiei aurre egiteko. Azkenik, elkarrekin bizitzea funtsezko elementua da; hezkuntzak ikasleak prestatu behar ditu gizartean modu aktiboan parte hartzeko eta ingurunea hobetzeko konpromisoa hartzeko (Egile Askok, 2024).

13. 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa, EHAA 38. zk., 1993ko otsailaren 25ekoa.

14. 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzkoa, EHAA 38. zk., 1993ko otsailaren 23koa.

Hizkuntzari dagokionez, euskal hezkuntza-sistemak euskara ardatz duen eredu eleaniztuna du oinarri. Bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean oinarritzen da, ikasleen ikaskuntza-prozesua bideratzeko eta gizarte-kohesioa sustatzeko. Halaber, herritarrek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko duten gaitasuna bermatzea du helburu. Berez, hezkuntza-komunitate osoaren (ez bakarrik eskolaren) ardura da ikasleen profil eleaniztuna, kulturartekoa eta multimodala garatzen laguntzea, horiek mundu globalizatu eta plural batean erraz integra daitezzen eta euskararen erabilera aktiboarekin konpromisoa har dezaten.

Horrez gain, 17/2023 Legeak euskararen presentzia indartu nahi du hezkuntza-komunitatean, haren erabilera kuantitatiboki eta kualitatiboki zabaltzeko. Aldi berean, atzeritar jatorriko ikasleen hizkuntzak eta kulturak aitortzeko espazioak sortu nahi ditu, elkarrekiko ezagutza eta aniztasunaren balio sozial eta ekonomikoa nabarmentzeko. Ikastetxeetan aniztasuna txertatzeak, gainera, ikasleen jakin-mina piztuko du beste hizkuntza eta kultura batzuekiko, eta haien funtzionamendua hobeto ulertzeko tresnak eskainiko ditu.

Legea, sei titulutan egituratzen da. Lehenengo tituluan, xedapen orokorrak jasotzen dira, hala nola legearen helburua, hezkuntza-sistemaren printzipio eta balio nagusiak, ikasketa-egituraketa eta ikastetxeen tipologia. Bigarren tituluan, hezkuntzarako eskubidea eta elkarbizitza positiboaren oinarriak arautzen dira. Hirugarren tituluak, euskal hezkuntza-sistemaren gobernantza instituzionala jorratzen du, eta laugarren tituluak, berriz, hizkuntzen trataera eta haien papera sistemaren barruan. Bosgarren tituluan, hezkuntzarako laguntza-zerbitzuak arautzen dira, eta seigarrenean, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako erakundea aurkezten da, hizkuntza-metodologiak lantzeko eta irakasleen prestakuntza sustatzeko tresna gisa.

Legearen hirugarren titulua garrantzi bereziko arlo material bat lantzerantz bideratzen da: euskal hezkuntza-sistemaren gobernantza instituzionala. Bertan, hainbat alderdi esanguratsu aztertzen dira, besteak beste, plangintza estrategikoa, programa-kontratuak, ikastetxeen gobernu-eredua eta zuzendaritza, ikastetxeetako gobernu-organoak tipologiaren arabera, hezkuntza-kontseiluen egitura gobernantza-eredu parte-hartzaile baten baitan, eta, oro har, hezkuntza-komunitatearen funtzioa. Azken puntu horretan, bereziki azpimarratzen da ikasleek, irakasleek, profesional-taldeek eta familiek duten rola, hezkuntza-sistemaren funtzionamenduan eragile nagusi gisa. Hain zuzen ere, laugarren kapituluan aztertzen da hezkuntza-komunitateko eragileek (ikasleak, irakasleak eta familiak) zein paper jokatzeko duten ezarri nahi den gobernantza-ereduan. Eragile horien parte-hartzea ezinbestekoa da sistema osoaren dinamikan, eta horren baitan kokatzen dira, hain zuzen ere, udaleko hezkuntza-kontseiluak.

Helburuak ezarrita, 17/2023 Legearen eragozpen nagusietako bat berau zuzenean garatzen duen erregelamendurik eza litzateke, bereziki udaleko hezkuntza-kontseiluei dagokienez¹⁵. Arau-hutsune hori legearen aplikazio integral bat bideratzeko oztopo bilakatu daiteke. Izan ere, legeak printzipio orokorrak eta alderdi estrategikoak zehaztuta utzi arren, horien lurreratze-arazoak gerta daitezke

15. Gaur-gaurkoz, 78/2024 Dekretua, hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzutekoa, da onartu den bakarra, aipatu legearen alderdietako bat garatuz. EHAA 127. zk., 2024ko ekainaren 28koa.

prozeduren identifikaziorik egin ezean arauzko garapen bidez. Legeak berak aipu ugari egiten dizkio erregelamendu bidezko garapenari eta Lehendabiziko Azken Xedapenean, Eusko Jaurlaritzari (eskumendun sailari, zehazki) esleitzen dio arauzko garapenerako eskumena eta ardura. Bitartean, konponbidea, aurreko legediaren aplikazioa baliozkotzea litzateke, betiere 17/2023 Legearen edukiekin kontraesanean ez badago. Horrek esan nahi du araudien konfluentzia edo bizikidetzaren baten aplikazioa nahitaezkoa izango dela eta bertatik bideratu ahal izango direla udaleko hezkuntza-kontseilu berriak sortzeko prozesuak.

3.2. Izaera

Udaleko hezkuntza-kontseiluak 17/2023 Legeak ezarritako kide anitzeko partaidetza-organoak dira. Kontseiluok ez dira erabateko ekarpen berriak hezkuntzaren eta tokiko administrazioaren arloan. Aurrekari argia daukate udaleko eskola-kontseiluetan, 13/1988 Legean aurreikusitakoetan, alegia. Esan daiteke kontseiluen parte-hartzearen zentzua eta izaera bera ez direla aldatzen. Hala, erregelamendu bidezko garapena egiten ez den bitartean behintzat, 13/1988 Legeak indarrean dirau. Hori horrela, ez da harrizkoa udaleko eskola-kontseiluaren udal-erregelamendua lege horren babesean onartu izan duten toki-erakundeek adibideak egotea, udal-erregelamendu horietan 2023ko legea aipatu ere egin gabe.

17/2023 Legearen hitzaurrean bertan azaltzen zaigu, xedea dela hezkuntza erantzukizun partekatu bilakatzea. Partekatze horretan, ikastetxeek eta gizarte-inguruneak elkarri eragin behar diote eta, gainera, gizarte-ekimeneko eta hirugarren sektoreko erakundeei sarrera emanez. Guztia, hezkuntza formalaren eta informalearen arteko uztarketan sakonduz (Ramirez de Okariz, 2017).

17/2023 Legearen lehenengo artikulua, «Kontzeptuak» izenburupean, udaleko hezkuntza-kontseiluaren abiapuntuko definizioa ematen digu: «Ikastetxe bat edo gehiago dauden udalerrietan eratu daitekeen gunen instituzionala da, eta haren helburua hezkuntza-proiektu komunitarioak taxutzea eta bultzatzea da, baliabide publikoen erabilera sinergiak sortuz eta ikasleen ongizatera eta garapenera bideratutako ekintzak gauzatuz». Kontseilu hauen izaerari dagokionez, ukaezina da parte-hartze erakunde bat dela, tokiko erakundeetatik herritarrei, udalerriko hezkuntza-komunitateari eta gizartean dauden beste eragile batzuei irekitzen zaiena, gurasoak eta ikasleak barne. Hortik abiatuta, kontseiluak erabakiak hartzeko organo gisa agertzen dira. Legearen hitzaurrean bertan irakur daiteke nola lortu nahi den familiak, ikastetxeak eta udalerriak elkarlanean aritzea, eta, hala, interakzioa bultzatzea, gizarte-ekimeneko eta gizarte-sektoreko erakundeei parte hartzeko aukera emanez, hezkuntzak erantzukizun partekatua izan behar duelako ustean.

Egin beharreko lehendabiziko galdera litzateke zer ondorio sortzen dituen errotulazio horren azpian kokatzen diren udaleko hezkuntza-kontseiluek duten izaerak. Horren harira, honela dio 60. artikulua: «Ikastetxe bat edo gehiago dauden udalerrietako toki-administrazioek udaleko hezkuntza-kontseiluak eratu ahal izango dituzte». Literalitateari men eginez, argi dago hautazko izaera duela. Horrek esan nahi du parte hartzen duten eragileek, bai toki-erakundeek, baita gainerako subjektuek

ere, borondatez jarduten dutela, eta, udal-agintariek abiatzeko borondaterik ez badute, organoaren eraketa bultzatu ahal izango dutela azken hauek, aurrerago ikusiko dugunez. Komeni da hemen aurreko 13/1988 Legearen arauketari ere erreparatzea; izan ere, OHOk bi ikastetxe (diru publikoarekin finantzaturakoak), gutxienez, dauden udalerrietan, udaleko eskola-kontseilua eratuko dela jasotzen baitu. Gainerako kasuetan, eraketa aukerakoa izango dela esanez, irizpidea malgutzen du. Hala ere, adigarria da ikastetxe publiko bat baino gehiago dituzten udalerriak badirela udaleko eskola-kontseilurik gabe, eta Gipuzkoako hiriburua har daiteke adibidetzat, ez baitago halakorik.

Ikuspegi instituzional hutsetik begiratuta, kontseilu horiek eratzeko asmoa (bi kasuetarako baliagarri, eskola-kontseiluak eta hezkuntza-kontseiluak), toki-erakundeak arautzen dituen oinarritzko araudiaren bidez egituratzen da, estatu-mailakoa den Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa (aurrerantzean TAOL)¹⁶. Beraz, TAOLen arabera, dagokion toki-erakundearen osoko bilkurak eman beharko dio oniritzia kontseiluaren sorrerari, eta udal-erregelamendu bidez ezarri beharko du kontseiluen antolaketa eta funtzionamendu espezifikoa, 49. artikulua xedatzen duenaren arabera.

Baina, garrantzitsua da kontuan izatea, herritarrek ere parte hartzen dutela aurreko fasean. Izan ere, organo parte-hartzaileei buruz ari garen honetan, parte-hartzea esparru akademiko eta eskolar hutsetik haratago doa, irismen zabalagoa dauka, non herritarrek ere hezkuntzaren agente bilakatu daitezkeen. Hala, komeni da jakitea, lehenik eta behin, herritarrek eurek har dezaketela bulkada-jarrera bat kontseiluen aurretiko eraketan, halakorik ez dagoen lekuetan. Hain zuzen ere, Euskadiko Toki Erakundearen Legea, 2/2016 Legea, apirilaren 7koan (aurrerantzean, ETEL)¹⁷, 78.1 artikulua aukera ematen du «herritarrek, erakundeek eta elkarteek, eta plataforma eta sareek, erabakiak, ordenantzak eta toki-erregelamenduak egitea abiarazteko ekimena baliatu ahal izatea», «udal-gobernuak bideragarri diren baloratu dezan», eta, hasiera batean, udalerriek eskumena duten edozein gairi buruzkoa izan daiteke. Hortaz, udaleko hezkuntza-kontseiluen sortze prozesua ere bertara lot genezake.

Azkenean erabaki behar duena udala bera bada ere (tokiko gobernu-batzarra edo alkatea, lehena ez balego), araudiak zehatz-mehatz ezartzen du «proiektua izapidetzeko ekimena bultzatzeari uko eginez gero, arrazoitu egin beharko dela eta pertsona edo erakunde sustatzaileei banan-banan jakinarazi beharko zaiela». Hori adierazgarria da, izan ere, udal-batzarrari edo alkateari ezezkua oinarrituko duen azalpen arrazoitua eskatuko baitzaio. Aitzitik, udalbatzak bere gain hartzen badu herritarren sustapen-ekimen horren tramitazioa, udalbatzak eztabaidatu egin beharko du, eta, ondoren, behin betiko onespina eman beharko dio. Eta, are gehiago, ETELen 78. artikulua 4. atalean aurreikusten denez, herritarrek berek aurkez ditzakete, nahi izanez gero, araugintzako herri-ekimen bidez, akordio-, ordenantza- edo erregelamendu-proiektuak. Kasu horretan, beharrezkoa izango da udalerrian bizi diren bizilagunen ehuneko hamarrak gutxienez sinatzea, baldin

16. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. EHAA 80. zk., 1985eko apirilaren 3koa.

17. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundearen Legea, EHAA 70. zk., 2016ko apirilaren 14koa.

eta bost mila biztanle baino gehiago baditu, edo ehuneko hogeiak, gutxienez, udalerrriak biztanle kopuru bera edo gutxiago badu, hargatik eragotzi gabe udalerriek berek, beren biztanleria edozein dela ere, legitimazio aktibo txikiagoa ezarri ahal izatea, hala zehazten badute beren ordenantzetan edo herritarren partaidetzarako erregelamenduetan.

Osoko bilkurak kontseiluaren funtzionamenduari buruzko erregelamenduari hasierako onarpena eman ondoren, araudiak galdatzen duelako, beharrezkoa da jendaurrean jartzea eta interesdunei entzutea, erreklamazioak eta iradokizunak egiteko aukera izan dezaten. Udalbatzak aztertu eta erantzun beharko ditu, dagokion moduan, behin betiko onar ditzan. TAOLen 49. artikulua xedatzen du ezen, horretarako ezarritako epean erreklamaziorik edo iradokizunik ez badago, erregelamendua behin betiko onetsizat joko dela.

Azkenik, hezkuntza-kontseilu horien izaerarekin amaitzeko, funtsezkoa da ulertzea ezen 17/2023 Legearen araberrako kontseiluak eskola edo ikastetxearen eremu hertsitik haratago doazela, eta ikasgelak gaintitzen dituzten alderdiak ere barnebiltzen dituela bere baitan; horregatik, bereziki, denominazio-aldaketa, eskola-kontseilua izena alde batera utzi eta hezkuntza-kontseilua izendapenera pasatuz. Izan ere, 17/2023 Legeko 33.6 artikuluan irakur genezake egitura horiek «eskola gizarte-sarean txertatzera bideratutako bizikidetzak-ereduak» sustatu nahi dituztela, «hezkuntza-espazio horiek gizartearekiko etengabeko interakziora irekiz». Horri buruz aurrerago itzuliko gara, beraren eskumenak azaltzerakoan balioa ematea komeni delako.

Udaleko hezkuntza-kontseilu horien izaera azaltzen duen azken elementua 17/2023 Legearen 60. artikulua da, laugarren atalean kontseiluak kontsultatzeko jardueren eta edukien katalogoa ezartzen denean dator. Izan ere, toki-erakundeak zalantzarik izanez gero, organo aholku-emailea da gai desberdinetarako: hezkuntza-beharrak identifikatzeko, eskaintza banatzeko eta ikasleak eskolatzeko irizpideak zehazteko, ikasleen eskolatzeko egokia eta orekatua bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko eta jarduteko, bereziki hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen eskolatzeko egokia eta orekatua bermatzeko, arrazoi sozioekonomikoengatik edo beste izaera batekoengatik segregaziorik gerta ez dadin, udal-esparruko hezkuntza-erakundeak sortzeko edo horien funtzionamenduari eragiten dioten hezkuntza-erakundeak sortzeko udal-klausula duten udal-erakundeei dagokienez. Gogoratu behar da udaleko eskola-kontseiluak ere izaera horrekin bat datozela, aurreko legearen 27.1 artikulua dioen bezala: «Udal-esparruaren barruan unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren programazioan kaltetutako sektoreen kontsulta eta parte-hartze erakundeak dira». Ez da, beraz, aldaketa esanguratsurik eman zentzu honetan.

3.3. Osaera

Orrialde hauek idazten diren momentuan, garapenezko araudi zehatzik ez dagoenez, 17/2023 Legea ez ezik, aurreko araudia osatzen duten xedapenetara ere jo beharko da, hau da, 13/1988 Legea. Gainera, berriki onetsi diren, eta azalpen honetarako interesgarrienak diren zenbait udal-kontseiluren funtzionamendu-

erregelamenduetara ere hurbilketa kasuistikoa egingo da, hauek izango baitira egitura berri hauen aplikazio praktikoaren erakusle nagusi¹⁸.

Lehenik eta behin, kontuan izan behar dugu 17/2023 Legea ez dela sartzen udaleko hezkuntza-kontseiluetako kide izango direnen xehetasunetan, ezta zehazki zein proportziotan egongo diren ere, baina ez dugu ahaztu behar hezkuntza-komunitatea osatzen duten kidego guztiak egon beharko direla bertan (ikasleak, gurasoak edo tutoreak, eta irakasleak, ikastetxeetan irakaskuntza-prozesuan esku hartzen duten hezkuntza-arretako beste profesional batzuekin batera, administrazio eta zerbitzuetako langileak ere barne hartuz). Izan ere, hezkuntza-kontseiluen osaera egituratzeko aukera subjektu sorta zabal bati irekitzen zaio, horien helburu nagusia izanik, legeak dioen bezala, hezkuntza-proiektu komunitarioak diseinatu eta sustatzea, baliabide publikoen erabilera koordinatuz eta ikasleen ongizatea eta garapena bilatuko duten ekintzak gauzatuz (60.2 artikulua).

13/1988 Legearen 28. artikulua dioena aintzat hartuz gero, kontseiluetako buru udaleko alkatea izango da edo, bestela, hark eskuordetutako zinegotzia¹⁹. Korporazio bakoitzak erabakiko du zein izango den bere udalerriko eskola-kontseiluetako kideen kopurua, «gutxienez bederatzi eta gehienez berrogei izango dena, bai eta gizarte-sektore bakoitzak zenbat kide izango dituen ere; hartara, irakasleak, ikasleak, ikasleen gurasoak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak, guztiek batera, gutxienez kontseiluko kideen ehuneko hirurogeita bosteko ordezkari izango dute. Gainerako ehuneko hogeita hamabostean, ikastetxe publikoetako zuzendarien eta funts publikoekin finantzatutako zentro pribatuetako titularren ordezkari partaidetza bermatuko da». Gainera, hezkuntza-administrazioak, egoki iritzi gero, edozein unetan Kontseilu horietan parte hartzeko ordezkari bat izenda dezakeela aurreikusten da. Baita ere udalak erabaki dezake berdintasun-organoetako kide batek parte hartu dezala (bozkarik gabe), hezkuntza-eremuan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna indartzeko neurriak sustatzeko asmoz.

Genero-perspektibari dagokionez, 17/2023 Legearen ondorengo kontseiluen osaketaren egituraketari begira, kontuan hartu beharrekoa da emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren galdekizuna. Izan ere, 1/2023 Dekretu legegileak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen

18. Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluaz gain, Bilboko Eskola Kontseilua ere aipatuko dugu (Funtzionamendu Erregelamenduaren argitalpena, *Bizkaiko Aldizkari Ofiziala*, 198. zk., 2008ko urriaren 15ekoa), Erandiokoa (Funtzionamendu Erregelamenduaren argitalpena, *Bizkaiko Aldizkari Ofiziala*, 76. zk., 2009ko apirilaren 24koa), Sopuertakoa (Funtzionamendu Erregelamenduaren argitalpena, *Bizkaiko Aldizkari Ofiziala*, 176. zk., 2016ko irailaren 14koa), Durangokoa (Funtzionamendu Erregelamenduaren argitalpena, *Bizkaiko Aldizkari Ofiziala*, 2020ko otsailaren 13koa), Ortuellakoa (Funtzionamendu Erregelamenduaren argitalpena, *Bizkaiko Aldizkari Ofiziala*, 242. zk., 2024ko abenduaren 17koa), Errenteriakoa (Funtzionamendu Erregelamenduaren argitalpena, *Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala*, 216. zk., 2014ko azaroaren 12koa), Eibarkoa (Funtzionamendu Erregelamenduaren argitalpena, *Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala*, 233. zk., 2022ko abenduaren 12koa) eta Tolosakoa. Azken hori da, 17/2023 Legearen arabera, hezkuntza-kontseilu gisa izendatzen den bakarra (Funtzionamendu Erregelamenduaren argitalpena, *Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala*, 129. zk., 2024ko uztailaren 4koa).

19. Durangon, esate baterako, lehendakaritza, udaleko Herritartasun arloko zinegotzi batek izango du eta alkateak izendatuko du; Bilbon, alkatea izango da berezko (nato) lehendakaria, eta Hezkuntzako zinegotziak alkatearen eskuordetzaz jardungo du funtzioen betekizunetan.

duenak, 10. artikuluan jasotzen duenez, gutxienez bi sexuen ehuneko berrogeiko ordezkaritza eskatuko litzateke²⁰.

Aztertu diren kontseilu guztietan antzeko egiturari jarraitu zaio, eta egitura horren elementu amankomuna, lehendakaritza litzateke; eskuarki, baina ez beti, presidenteordetza²¹; eta ondoren, osoko bilkura²², bertan kontseilariak egongo liriteke (zenbait kasutan bokal izena daramatenak²³) eta jatorri desberdina dutenak. Presidentzia edo lehendakaritza nori dagokion 13/1988 Legeak jasotzen du, baina ez nori dagokion presidenteordetza. Aukera desberdinak aurkitu genitzake: alkateak aukeratu dezake kontseilarien artean (udal-taldean ordezkaritza duten kontseilarien artean)²⁴; erabat kontrakoa ere izan daiteke, hau da, taldeen ordezkaritza duten kontseilarien artean aukeratzea erabat baztertuz²⁵, edo, aldez aurretik udal-organigramaren barruan beste kargu bat izateagatik aukeratua izatea (adibidez, kontseiluarekin lotura substantiboa duen beste batzorde bateko lehendakaria izatea).

Halaber, ikusi da zenbait udal-kontseilutan beste kudeaketa- eta funtzionamendu-organo batzuk ere sortu direla, hala nola batzorde iraunkorra edo/eta lan-batzordeak²⁶, kontseiluaren beraren lanaren eraginkortasunari laguntzeko asmoz. Batzorde iraunkorraren kasuan, haren egitekoa, organo nagusiaren (hau da, osoko bilkuraren) bilera baino lehen, eguneroko kudeaketa eta planifikazioaz arduratzea da; eta lan-batzordeen kasuan, berriz, esparru zehatzen azterketa finduagoa egiten dute, ondoren, osoko bilkuran (edo batzorde iraunkorrean, baldin badago) eztabaidatu beharreko proposamenak eta txostenak landuz.

Aztertu ditugun udal-kontseilu guztietan idazkaritzaren figura ere agertzen da, kudeaketa administratibo zein teknikoaz, eta dauden beste organoei laguntzeaz arduratzen dena, eta udalbatzaren bilkuretan parte hartuko duena, nahiz eta botorik ez izan²⁷. Profil teknikoa eta hezkuntza-arloarekin lotura duen norbait izatea da ohikoena; gehienetan, hezkuntzaren arloko teknikari arduraduna izaten da, baina haur eta gazteriaren arloko teknikaria ere bai bestetan; eta, kasuren batean, korporazioko gobernuak berak izendatzen du (funtzionarioen artetik)²⁸ edo kontseiluko buruak (udaleko hezkuntza-zerbitzuko buruak laguntza teknikoko organoan parte hartzen duten hezkuntzaren arloko teknikarien artetik proposatuta)²⁹.

20. 10. artikuluko 3. paragrafoan: «Persona anitzeko administrazio-organoei dagokienez, eta lege honen ondorioetarako, ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da lau kideetik gorako organoetan sexu bakoitzeko kideek % 40ko ordezkaritza dutenean gutxienez. Gainerako kasuetan, berriz, bi sexuek ordezkaritza dutenean».

21. Ortuellako Hezkuntza Kontseiluaren funtzionamendurako Erregelamenduan ez da figura hau jasotzen eta Tolosako Udaleko Hezkuntza Kontseiluaren funtzionamenduko Erregelamenduan ere ez.

22. Zenbait kasutan jaso duen izena, Durangon esaterako, Kontseiluaren Batzar Orokorra da. Bestalde, Ortuellan ez da desberdintzen Plenoaren eta Kontseiluaren artean.

23. Errearteria edo Eibar Gipuzkoan, edo Ortuella Bizkaian.

24. Eibarren.

25. Gasteizen.

26. Bilbon, Eibarren edo Tolosan.

27. Gasteizen, idazkaritzari atxikita, laguntza teknikorako organo deritzona eratu da. Bertan, hezkuntzako udal-zerbitzuko buruzagitza eta zerbitzu horretako hiru teknikari daude, laguntza tekniko eta administratiboa ematen duen organo bati dagozkion funtzioak betetzen dituztenak.

28. Sopuertan.

29. Gasteizen (Funtzionamendurako Erregelamenduen 15. artikulua).

Beste udalerrri batzuetan, udaleko idazkari nagusia bera da, printzipioz, udaleko eskola-kontseiluko idazkaritza hartzen duena³⁰.

Udaleko eskola-kontseiluetako kideen analisira hurbilduz, Gasteizko kasua hartu genezake abiapuntutzat³¹. Berau, 17/2023 Legea onartu ondorenekoa da eta hogeita hamaika kideko kopuru finkoa ezartzen du. Horien artean, ikusten dugu ordezkari politikoari lekua ematen zaiola: alde batetik, lehendakari, eta, bestetik, udalbatzan ordezkari handiena duen udal-talde politiko bakoitzak izendatutako zinegotziak (lau dira guztira). Horixe litzateke profil politikodun kideen presentzia. Beraz, ordezkari gehienak, hezitzaile zein irakasleak dira, eta ikastetxeetako (publiko zein itunpekoak) zuzendaritzetako ordezkariak. Guraso-elkarteetako ordezkariak ere presentzia dute eta hezitzaile/irakasleak kopuru bera dira, hau da, zazpi, honela antolatuta: ehuneko hirurogei ikastetxe publikoei lotuta dago (bost) eta berrogei pribatuei eta itunpekoari (bi). Hezitzaileen eta irakasleen kupoagatik ordezkarien kasuan, kontuan hartu behar da beren sindikatuek izendatzen dituztela, eta familiena, berriz, ikastetxe publikoetako eta ikastetxe pribatu itunduetako guraso-elkarteen federazioek. Ikasleek ere ordezkari izango dute, beren ordezkari-elkarteen bidez izendaturikoa (bost kide).

Bada, Gasteizko adibidea interesgarria da, nahiko garbi ikusten delako hezkuntza-eragile guztiak bertan barneratzeko borondatea egon dela; eta, gainera, ordezkari horrekin batera, hainbat gonbidatu gehitzen direlako, osoko bilkuretan eta lan-batzordeetan «modu egonkorrean» parte hartu dezaten, ahotsarekin baina botorik gabe (Haurreskolak Partzuergoko gerentea, EHUKo Arabako Campuseko errektoreordea, hezkuntzaren arloan ardura duen udal-departamentuko zuzendaria, udaleko hezkuntza-zerbitzuko burua, herritarren partaidetzako udal-zerbitzuko burua eta udaleko berdintasun-zerbitzuko burua). Nolanahi ere, gaitasun teknikoak direla-eta, beste pertsona batzuk ere gonbidatu ahal izango dira, agindutako eginkizunak hobeto betetzeko beharrezkoak diren txostenak aurkeztera, bai eta Kontseiluari berari bereziki egindako ekarpenengatik egoki irizitakoak aurkeztera ere.

Gainerako udaleko eskola-kontseiluak arautzen dituen araudia aztertu ondoren, horien osakerak jarraibide berberak betetzen dituela ikusi da. Jarraibide horiek, 13/1988 Legearen 28. artikuluan daude diseinatuta. Hala ere, aipatu beharreko alde batzuk daudela ikusi da. Hemen adibide batzuk: 1) Udaleko eskola-kontseiluetan ez da ezartzen udalbatzan ordezkari duten udal-taldeen ordezkarien partaidetza espezifikorik³²; 2) Beste muturrean, ikasleen ordezkariak ere ez da ageri, ezta zerbitzu-administrazioko langileenik ere³³; 3) Era berean, ikastetxe bakoitzeko irakasleen klaustruko ordezkari bat eta ikastetxeetako eskola-kontseiluetako ordezkari bana

30. Nahiz eta gero hezkuntzako arloko funtzionario bati eskuordetzeko aukera duen (Errenteriako Funtzionamendurako Erregelamenduen 4. eta 14. artikulua).

31. Bere osakerak kontsultatu daitezke (2024ko azarokoa):

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/39/49/73949.pdf> (azken kontsulta: 2026-4-15).

32. Bilbo, Erandio eta Sopuerta.

33. Eibar, Sopuerta eta Ortuellako Udal Eskola Kontseiluetan eta Tolosako Udaleko Hezkuntza Kontseiluan ez dago ikasleen ordezkariarik; Bilbo eta Errenteriakoetan zerbitzuen administrazioko pertsonalari aipua egiten zaio.

biltzen dituen batzorderik ere bada, gurasoen taldea ordezkatzeko balioko lukeena³⁴; 4) Beste kasu batzuetan, hezkuntza-ikuspegia beren lanean txertatuta duten elkarteetako ordezkariak agertzen dira kideen artean³⁵; 5) Norbanakoak kontseilari edo batzordekide izatera irits daitezkeen kontseiluak ere badira, bai hezkuntzaren aldeko jardueretan ibiliak direlako eta gaiarekiko interes egonkorra agertu dutelako, bai balio handiko adituak direlako³⁶; 6) Edonola ere, eskola-kontseiluen adibide guztietan, udalerrian dauden ikastetxeetako zuzendaritzen ordezkariak eta ikasleen gurasoen elkarteetako ordezkariak parte hartuko dute, eta 7) Azkenik, Gasteizko Udal Kontseiluari buruz aurreratu den bezala, batek baino gehiagok zehatz-mehatz jasotzen du, zera: beren gaitasun teknikoagatik kontseiluari berari agindutako eginkizunak hobeto betetzeko beharrezkoak diren txostenak aurkez ditzaketen pertsonak hitzarekin baina botorik gabe parte hartu ahal izango dutela³⁷.

Erabaki-hartze prozedurari dagokionez, behin eta berriz errepikatzen da osoko bilkurak hartu beharreko erabakiak adostasunez hartuko direla, eta horrek, hain zuzen ere, kontseilu horien izaera parte-hartzailea eta deliberatiboa azpimarratzen du. Hartara akordioa ezinezkoa denean, gehiengo soilez bozkatzea eta erabakitzea ezartzen da. Bilboko Udaleko Eskola Kontseiluaren kasuan, honako zehaztasun hau ere ezartzen da: «Desadostasunik egonez gero, proposamenak gehiengo soilez hartuko dira, salbu eta boto-eskubidea duten bertaratuen gehiengo abstenitzen bada. Kasu horretan, eztabaidekin jarraituko da eskatutako gehiengo lortu arte. Proposamena azken bilkuran edo hurrengo bilkuran lortzen ez bada, gehiengo soilez onetsiko da, proposamenaren xede den gaian izandako abstentzio kopurua edozein dela ere. Azken kasu horretan, azkenean adostu gabeko akordioaren baten aurka bozkatzen duenak boto partikularrak eman ahalko ditu. Boto partikular horiek bileraren aktari erantsiko zaizkio, eta jasota geratuko dira»³⁸.

Azkenik, agintaldiari dagokionez, kontseilu horiek osatzen dituzten ordezkarien agintaldia lau urtekoa da, eta agintaldi hori udal-korporazioen legegintzaldien hasierarekin eta amaierarekin lotuta dago, 13/1988 Legeak ezartzen duen bezala. Bitxia bada ere, bi urtean behin berrituko den kontseilurik ere bada, Sopusuerta udalerriz bizkaitarrekoa, hain zuzen ere. Kasu horretan, gainera, bere osaeragatik ere nabarmentzen da, lehen esan dugun bezala, bere kontseilarien artean ez dagoelako

34. Sopusuertan.

35. Adibidez, Ortuellan eta Tolosan.

36. Ortuellan, adibidez, hezkuntza-esparru formalean, informalean, arautuan edo arautu gabean balio handia duten adituak izateagatik banaka parte har dezaketen pertsonak aipatzen dira, gai zehatz eta espezifikoei buruzko azterketa eta aholkularitza egiteko.

37. Adibidez, Erandion, Durangon edo Eibarren.

38. Bilboko Funtzionamendu Erregelamenduaren 21. artikulua: Bilboko Eskola Kontseilua partaidetzan oinarritzen den organoa den aldetik, erabakiak adostuta hartzeko beharrezko elkarrizketak eta eztabaidak sustatuko dira. Dena dela, kideak bat etorri ezean, gehiengo soilez hartuko dira proposamenak onartzeko erabakiak, boto-eskubidea duten eta bileran dauden pertsona gehienak abstenitu ezik. Gehienak abstenituz gero, eztabaidatzen jarraitu beharko da beharrezko gehiengo lortu arte. Azken bileran gehiengo lortzen ez bada, proposamena gehiengo soilez onartuko da, proposatutako gaia onartzeko orduan abstentzio-kopurua edozein izanda ere. Horrela gertatuz gero, azkenean ere adostu gabe gelditu den erabakiaren aurkako botoa eman dutenek boto partikularra eman dezakete. Boto partikular horiek bilkuraren aktarekin batera jasoko dira.

udalbatzan ordezkariak duten talde politikoen ordezkariak³⁹. Aitzitik, guraso-elkar-teetako ordezkariak eta udalerriko ikastetxeetako zuzendariak gain, ikastetxe bakoitzeko irakasleen klaustroko ordezkariak eta ikastetxe bakoitzeko ordezkariak organo goreneko ordezkari bat ere sartuko dira, bai eta udalerriko edozein erakunde edo antolakundetakoak ere, baldin eta horien helburu nagusia udalerrian hezkuntzaren finkapena, kalitatea eta aniztasuna zaintzea bada. Egitura horrek argi erakusten du ordezkariak eta gatazka politikoa ahalik eta gehien urruntzen dituela, eginkizunari dagokionez behinik behin, eta hezkuntza-komunitateari zein udal-eremuko irakaskuntzaren programazioari eragiten dieten gai zorrotzetan ardatzen duela kontseiluaren egitekoa.

Azaldu dugun guztia 13/1988 Legeak ezartzen dituen koordenatuetan kokatzen badugu ere, egia da lege horrek bere osieran hirugarren sektoreko erakundeak, gazte-erakundeak, kultur edo kirol-erakundeak sartzeko aukera aipatzen duela. Beraz, argi dago kontseiluetan talde gehiagoren ordezkariak ireki eta sartzeko helburua dagoela. Hala ere, komeni da manuairen literaltasunari erreparatzea, eta «entitateak sar daitezke» jasotzen den heinean, aukera irekitzen dela interpretatzea, baina ez betebeharra. Finean, kontseiluko kideak zeintzuk izan daitezkeen azkenean erabaki estrategiko bat izan daiteke; izan ere, horrek erakundearen norabidea marraztu dezake eta bere etorkizuneko erronkak edo aukera estrategikoak zehazten lagundu.

3.4. Eskuduntzak

Udaleko hezkuntza-kontseilu berrien potentzialtasuna zein izango den antzematen saiatzeko, ezinbestekoa dirudi udaleko eskola-kontseiluek 13/1988 Legearen arabera beren udal-erregelamenduetan materialki bereganatutako eskumenak aztertzea, eta horiek 17/2023 Legeak aintzatesten dituenekin alderatzea.

Abiapuntua, beraz, 13/1988 Legearen 29. eta 30. artikuluek emango digute. Horietan, lehenik eta behin, esaten zaigu udaleko eskola-kontseilua derrigorrez kontsultatu behar dela, materien zerranda zabal batean. Eta, bestetik, ahalmena aitortzen zaie «udalak eskumena duen edozein gaitan hezkuntza-arloko edozein gairi buruzko proposamenak egiteko udalari». Araudi horren parean, 17/2023 Legearen 60. artikulua edukia daukagu.

Batetik, honako hau adierazten zaigu: «Hezkuntza-proiektu komunitarioak taxutzea eta bultzatzea izango dute xede, baliabide publikoen erabileran sinergiak sortuz eta ikasleen ongizate eta garapenera bideratutako ekintzak gauzatuz». Eta, ondoren, hezkuntza-kontseiluek programak, proiektuak eta ekintzak sustatuko dituztela aipatzen da, «hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea sustatzeko, eta antolaketak formalaren eta ez-formalaren arteko bateragarritasuna sustatzeko».

Azterketa honen oinarri izan diren udaleko eskola-kontseiluen erregelamenduen azterketatik ikus daitezkeenez, erabiltzen den terminologiaren arabera, gehien-gehienetan helburuak eta funtzioak, edo helburua eta eskumenak bereizten dira. Horietako askok, eskumenen (edo eginkizunen) zerranda egiterakoan, 13/1988

39. Bilboren kasua.

Legearen 29. artikulua hitzez hitzekotasunari jarraitzen diote, nahiz eta zenbait udalerriren kasuetan, gaiak are gehiago zehazten diren eta 30. artikulua babesean zabaltzen diren⁴⁰.

Kontsulta-eskumen zehatzari dagokionez, esan behar da derrigorrez kontsultatu behar diren gai guztiak 17/2023 Legearen 60. artikuluko laugarren atalean jasotako barruan sartzen direla. Horrenbestez, «hezkuntza-beharrak identifikatzea, eskaintza banatzea eta ikasleak eskolaratzearen zehaztapena, hiri-plangintzakoak barne» materia, 13/1988 Legearen 29. artikuluko lehendabiziko («udal-esparruan eskola-plazak sortu, kendu eta ordezteko proposamenak, bai eta ikastetxeak berriztatzeak ere»), laugarren («gizarteak hezkuntza-komunitateari eskolatzeko egiten dizkion prestakuntza-eskaintzak koordinatu eta sartzeara») eta bosgarren («hezkuntza-beharrak zehaztea») ataletako materiekin identifikatzen da. Era berean, «hezkuntza-laguntzarako premia espezifikoak dituzten ikasleen eskolatzeko egokia eta orekatua bermatzeko beharrezkoak diren jarduerak eta neurriak hartzea, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo beste izaera bategatik bereiztea saihesteko», 13/1988 Legearen 29. artikuluko hirugarren ataleko («hezkuntzari buruzko udal-jarduerak eta -xedapenak, hezkuntza bereziaren arloan, haur-eskolatzearen arloan, helduen etengabeko prestakuntzaren arloan, jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren arloan») eta seigarren ataleko («hezkuntza konpentsatorioaren jardueraplana») materietan legoke jasota. Halaber, «ikastetxeen funtzionamenduari eragiten dioten udal-jarduerak» 13/1988 Legearen 29. artikuluko bigarren materietan jasotzen direnekin identifikatuko lirake («garbiketa, kontserbazioa, mantentze-lanak, instalazioak berritzea eta abar direla-eta ikastetxeen funtzionamenduari eragiten dioten udal-jarduerak»); «udalerrira eremu duten patronatu, partzuergo eta hezkuntza-erakundeen eraketa» zazpigarren materia gisa barneratuta legoke ia hitzez hitz 13/1988 Legearen 29. artikuluan («udal-agintariak edo udal-esparruko hezkuntza-erakundeak eratzea»). Azkenik, klausula ireki modura jasotzen den «erregelamendu bidez aurreikusten diren besteak» zortzigarreneko «hezkuntza-agintarien edo/eta udal-agintarien esku uzten den beste edozein» formularekin parekatuko lirake.

Hala ere, udaleko eskola-kontseiluak ez dira kontsulta-organo hutsak, baizik eta, haien izaera jorratu dugunean esan bezala, eztabaidarako eta parte hartzeko bokazioa dute, eta, horren ondorioz, beste hainbat eginkizun betetzen dituzte, hala nola sustapena, jardueren jarraipena eta aholkularitza. Hori horrela nabarmentzen da eskola-kontseiluak arautzen dituzten zenbait erregelamendutan, besteak beste, sexuaren araberako aurreiritziak, estereotipoak eta rola ezabatzeko ekintzak bultzatzea eta ikasleen garapen pertsonal integrala bermatzea funtzio gisa esleitzen zaizkienean⁴¹. Ildo horretan, eskola-komunitateari aholkuak ematea eskolatzeari, funtzionamenduari eta hezkuntza-orientazioari buruz⁴², eta hizkuntza-normalizazioarekin eta euskararen erabilerarekin lotutako jarduerak egitea (ez soilik

40. Paradoxikoa da, hain zuzen ere, Tolosak, 17/2023 Lege berrian oinarrituta sortzen den bakarra denak, besteen kontra (Gasteiz, Bilbo, Erandio, Durango, Ortuella, Lasarte-Oria edo Errenteria), ez duela aurreikusi kontseiluaren bidez udalaren eskumeneko gaiak buruz proposamenak egin eta gora jotzeko aukera, soilik kontsultarako organo gisa finkatuz.

41. Bilbo, Sopuerta, Errenteria, Lasarte-Oria eta Eibar.

42. Gasteiz, Bilbo, Sopuerta, Durango, Ortuella, Errenteria.

eskola-eremuan, baita handik kanpo ere) eskola-kontseiluek gauzaturiko funtzioak izan dira.

17/2023 Legearen azterketa eginez, administrazioak, hezkuntza-komunitateak irakaskuntzaren programazio orokorrean duen parte-hartzea zaindu behar duela esaten da, eta parte-hartze esparru horretan, eztabaidarako organo eta prozedurek garrantzi handia izango lukete. Zalantzarik gabe, hezkuntza-kontseiluak funtsezko elementuak lirateke. Horregatik, hezkuntza inklusiborako bermeak lantzen direnean, udalak aipatzen dira zuzenean, eta zehazki, udaleko hezkuntza-kontseiluak seinalatzen dira, «ikasleen ongizatea eta hezkuntza indartzea helburu duten hezkuntza-proiektu komunitarioak sustatu ditzaten, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko harmonizazioa eta osagarritasuna garatuz»⁴³ eta, hala, ekimen berritzaileak bultzatu ahal izatea, «beren jardueren hartzaile gisa ikasleak dituzten gizarte-, ekonomia-, kirol-, kultura-, osasun- eta hirugarren sektoreko eragileekin lankidetzan jardunez»⁴⁴.

Guzti honetatik ondoriozta genezake ezen legegileak euskal hezkuntza-sistema garatu nahi duen eszenatokia eskalako parte-hartzean eta eztabaidan oinarrituta eraikitzen den eszenatoki bat dela. Bertan, eragileek aukera izango lukete hezkuntzaren hainbat alderditan eragiteko eta horien gainean hausnartu eta jarduteko. Guztia, kontuan izanik, erantzukizun partekatua den hezkuntzak ikastetxeen eta haien gizarte-ingurunearen arteko interakzioa bideratzea eskatzen duela, eta, gainera, gizarte-ekimeneko eta hezkuntza formaleko erakundeak, biak ala biak, funtsezkoak direla prozesuan. Jakina, ez dugu ahaztu behar hezkuntza-kontseilu horiek ez dutela berez erabaki exekutiborik hartzen, eta, zenbait gairi buruz derrigorrez kontsultatu behar badira ere, haien ikuspuntuak ez direla lotesleak. Baina, hori alde batera utzita, hezkuntza-prozesuan funtsezkoak izan daitezkeen auzi, arazo, kritika eta proposamen berritzaileak planteatzeko gaitasuna duen foro bat izateak berebiziko garrantzia dauka, kontsultiboa bada ere. Alderantziz: zenbat eta gehiago bideratu edo kanalizatu herritarren parte-hartzea hezkuntza-bizitzan udal-organo hauen bidez, orduan eta hobeto identifikatu ahal izango dira premiak eta eskaera horiei erantzuna ematea erraztu daiteke⁴⁵.

2025eko martxoan, eratuta dagoen udaleko hezkuntza-kontseilu bakarra, Tolosakoa da. Haren Erregelamenduan 17/2023 Legea berariaz aipatu da, eta izendapena ere legeak ezarritakoa da: udaleko hezkuntza-kontseilua. Erregelamenduaren 2. artikuluan, kontseilu berri horren helburua zein den adierazten da, hau da, eragileen parte-hartzea indartzea eta hezkuntza-eremuan lankidetzaren sustatzea, eta, hala, ikastetxeen eta gizarte-ingurunearen arteko elkarrekintza handiagoa izatea lortzea, ikasleentzako komunitate-baliabideak udalerrian antolatzea eta, azkenik, hezkuntza formala eta ez-formala gehiago integratzea lortzea. Azken hori esanguratsua suertatzen da, oinarrian ardatz gisa kokatzen dena ikaskuntzaren izaera orohartzailea baita: ikaskuntza-prozesu hezitzailea iturri desberdinetatik elikatzen den prozesu orohartzaile bat da, eta ikasleak, irakaskuntza antolatu eta

43. 28.6 artikulua.

44. 34.3 artikulua.

45. Gasteiz, Bilbo eta Durangon udalaren eskumenekoak diren hezkuntza-gaietan udaleko eskola-kontseiluek proposamenak egiteko bidea aurreikusten da.

arautuan ez ezik, malguagoa eta informalagoa den beste esparru batzuk ere lanketa pertsonalerako ezinbestekoak ditu.

3. artikuluan, bereziki, 17/2023 Legearen 60.4 artikuluan barneraturiko eskumenak jasotzen dira, eta baita 27, 28, 33 eta 34. artikuluetakoak ere. Hala, Tolosako Udaleko Hezkuntza Kontseiluak, «aldez aurretik hezkuntza-administrazioari eta Tolosako Udalari nahitaezko kontsulta eginda», jorratu ditzakeen gaien katalogoa da. Nahikoa da erregelamendua irakurtzea ohartzeko ez dagoela alde handirik erregelamenduan jasotzen denaren eta aurretik azalduko beste udaleko eskola-kontseiluen inguruan azaldu dugunaren artean. Deigarria da, hala ere, udalak erabaki beharreko materiez gain, kontseiluak bere kabuz beste gai batzuetan *motu propio* proposamenak egiteko aukera oinarritzeko ez dela klausularik jasotzen.

Bestalde, esanguratsutat jo genezake erregelamenduan berariak jasotzen dela hezkuntza-kontseiluak udalari egindako proposamen edo alternatiba orok, behin betiko onarpenean kontuan hartzen ez bada, kontseiluari erantzun bat ematea eskatuko duela, «ezezko horretarako arrazoiak adierazita». Aurreikuspen horrek, kontseiluaren funtzioa kontsultiboa eta ez loteslea izanik ere, kontseiluaren barruan erabakitakoaren norabideari ez jarraitzeko edo baztertzeko arrazoiaren azalpena eskatzeak, prozeduraren gardentasun-maila eta udal-korporazioaren erantzukizuna nabarmen indartzen ditu.

Bukatzeko, eta plano orokorrera bueltatuz, 17/2023 Legearen 60.2 artikulua birtualtasuna bera nabarmendu nahi genuke, kontseiluak proposatzeko ahalmena duen organismo aktibo eta eraginkor bihurtzeko norabidean. Horretarako, Haurren eta Nerabeen 2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa (aurrerantzean, 2/2024 Legea)⁴⁶ izango dugu oinarri. 17/2023 Legeak dioenez, udaleko hezkuntza-kontseiluen helburua «hezkuntza-proiektu komunitarioak diseinatu eta bultzatzea izango da, baliabide publikoen erabileran sinergiak sortuz eta ikasleen ongizate eta garapenera bideratutako ekintzak aurrera eramanez, erregelamendu bidez zehazten diren eskuduntzekin bat».

Bada, 2/2024 Lege beraren 47.6 artikuluan, Eusko Jaurlaritzaren eta udalen arteko lankidetzara deia egiten da, «ikastetxeetan, eskola-ordutegitik kanpo eta oporraldietan aisialdi-programa hezitzaileak garatu ahal izan daitezen, epe horietan gurasoen lan- eta familia-bizitza bateragarri egiten laguntzeko». Artikulu hau adibide oso egokia izan daiteke, legegilearen borondatea, hezkuntza-kontseilua kontsulta-organo hutsa baino zerbait gehiagotzat kontsideratu duela argudiatzeko. Izan ere, bi lege autonomikoen uztarketaren ondorioz, kontseiluen esku hartzeko gaitasun sendoagoa ondoriozta daitekeela uler genezake eta, hala, bere deliberazio- eta proposamen-izaera indartu daitezkeela. Hartara, kontseiluko kideek benetan eragin ahal izango dute eta beren ikuspuntua eman ahal izango dute ikasleen ongizatera eta garapenera bideratutako ekintzetan. Gure ustez, 17/2023 Legearen 60.2 artikulua eta 2/2024 Legearen 47.6 artikulua batera irakurrita⁴⁷, hezkuntza-kontseiluaren baitan garatzeko hezkuntza-proiektu komunitarioa izan daitekeenaren eredu bat

46. 2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeei buruzkoa, EHAA 44. zk., 2024ko otsailaren 29koa.

47. 2/2024 Legearen 7.1.a) eta b) artikuluekin lotuta.

ondoriozta daiteke. Beraz, eskola-ordutegitik kanpo eta oporraldietan aisialdi-programa hezitzaileak antolatzearen inguruko eskumena udalei esleituta egonik, hezkuntza-kontseiluak foro kualifikatuak izan daitezke programa horiek proposatu eta diseinatzeko orduan, hargatik eragotzi gabe horien inplementazioa eta arauzko eraginkortasuna tokiko erakunde bakoitzaren esku egotea.

Aurretik esan dugun bezala, ikuspegi orokor bat izatea funtsezkoa da, eta, ikuspegi holistiko horretan, hezkuntza-kontseiluen eskumen espezifikoak eta udalerrien eskumenak 2/2024 Legeak jasotzen dituenekin. Izan ere, lege horrek izaera transbertsala dauka eta haur eta gazteei eragin diezaiekeen edozein ekintza inplementatzerakoan nahitaez kontuan izan beharrekoa. Eta xeheago, hezkuntzarako eskubidea garatzean, 33. artikuluan honako hau dio zehatz-mehatz: «Adingabeek eskubidea dute beren gaitasunak eta identitate pertsonala erabat garatzea sustatuko duen hezkuntza integrala izateko, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legean jasotako hezkuntza-helburuak lortzeko ere». Aipamen generiko hori ezin genezake gure aztergaiarekiko funtsezko ekarpen gisa ulertu, baina bada 17/2023 eta 2/2024 Legeen arteko harremanaren erakusle.

Edonola ere, kontuan izan behar da, gaur egun indarrean dauden eskola-kontseiluen araudiarekin, horiek jada bidal ziezazkioketela udalari «hezkuntza-arloko edozein gairi buruzko proposamenak, baldin eta udalerriek gai horiek ebazteko eskumena bazeukaten». Baina aukera hori udaleko eskola-kontseiluaren funtzionamendu-erregelamenduan bertan ezarri behar zen, eta, arauak aztertuta, ez dela beti hala egin konstatatu genezake.

Azkenik, lanean zehar aipatu den ideia batekin bukatu beharrean gaude, ezin baita ahaztu 17/2023 Legeak berak esaten duela hezkuntza-kontseiluen eskuduntzak erregelamendu bidez zehaztu behar direla, eta bertan ikusiko dela, garapena gauzatzen denean, ea proposamen-ekintza hori bultzatuko duen araudirik sortuko den edo arau-hutsuneak baliatu beharko diren aurrerantzean ere.

4. Hainbat ondorio

Segurtasun juridikorik eza (ziurgabetasuna) hezkuntza-kontseiluen aplikazioan eta funtzionamenduan, arau-garapenik ez dagoelako: 17/2023 Legeak hezkuntza-kontseiluak hezkuntzan parte hartzeko organo gisa ezartzen ditu, baina orain arte ez da haien funtzionamendua zehazten duen araudirik garatu. Horrek, nahitaez, eta, beraz, 13/1988 Legearekin bizikidetzan jardun beharra dakar. Erregelamendu-garapenik ez egoteak airean uzten ditu funtsezko zenbait gai, hala nola osaera zehatza, gauzatu ahal izango dituzten eskumen espezifikoak edo erabakiak hartzeko prozedurak. Zehaztasun falta horrek ziurgabetasuna sor dezake ikastetxeetan zein tokiko administrazioetan, esaterako, sortze-prozedurak aktibatzerakoan eta euskal hezkuntza-sistemaren barruan izan ditzaketen funtzioen argitasunean. Seguru asko, garapen-araudi berria ez da oso desberdina izango, baina aldaketak egin daitezke, eta, beraz, logikoa da une honetan *impasse* egoeran egotea udalerrri asko.

Aurreko araudiarekin alderatuta, funtsezko aldaketarik izan ez duen egitura da: lege berria onartu arren, hezkuntza-kontseiluen arauketak ez du egiturazko alda-

ketarik izan aurreko legeriarekin alderatuta. Bestela esanda, eskola-kontseiluen eta hezkuntza-kontseiluen diseinuan erabilitako erretorikak antzekoa izaten jarraitzen du. Horrek esan nahi du euskal hezkuntzaren barruan dituen eginkizunak ildo kontinuitari jarraitzen diola, eskumenetan, eginkizunetan edo parte hartzeko moduan aldaketa nabarmenik egin gabe.

Izaera loteslerik ez duten aholkularitza-organoak dira: hezkuntza-kontseiluak kontsultarako organo gisa definitzen dira, eta horrek esan nahi du hezkuntzaren arloan aholkatzea, eztabaidatzea eta neurriak proposatzea dela haien eginkizun nagusia, baina haien erabakiak ez direla nahitaez bete beharrekoak tokiko administrazioarentzat. Izaera horrek hezkuntza-politiketan edo erabaketan zuzenean eragiteko ahalmena mugatzen badu ere, gaitasun hori izatea funtsezkoa da hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea bermatzeko. Alde horretatik, eraginkortasuna, neurri handi batean, agintariek beren proposamenekiko ematen duten erantzunaren eta eragileek elkarrizketa- eta eztabaida-prozesuan duten konpromisoaren arabera izango da. Azken batean, hezkuntza-kontseiluei lotutako prozesuak gidatzen dituztenen borondate politikoa izango da funtsezkoa. Kontseiluaren izaera aholku-emailea aldatu beharrik gabe, esaterako, oso komenigarria litzateke toki-erakundeei eskatzea azaldu dezatela kontseiluaren bilkurak eginiko proposamenetatik edo emandako irizpideetatik aldentzearen arrazoiak.

«Hezkuntza-proiektu komunitarioen» txertaketak irekitzen duen bide propositiboan aurrera egitea: hezkuntza-kontseiluek hezkuntza-proiektu komunitarioak diseinatzeko aukera da lege berrian sartutako aurrerapen nagusietako bat. Funtzio hori aurrerapauso gisa har liteke haien rolean, kontsulta-organo huts izatetik udal-esparruan hezkuntza-ekimen eta estrategia propioak sortzeko gaitasuna duten instantzia izatera igarotzeko aukera ematen baitie. Kontseiluei baliabide egokiak eta haien garapena sustatuko duen arau-esparrua emanez gero, proposamen gehiago egingo lituzkeen figura baterantz eboluzionatu ahal izango lukete, eta horrek benetako eragina izango luke udalerrietako hezkuntzaren konfigurazioan, betiere Legeak ezarritako muga funtzional eta materialarekin. Asmoa litzateke 17/2023 Legearen 60.2 artikulua irakurketa propositiboa egitea: hezkuntza-kontseiluen helburua hezkuntza-proiektu komunitarioak diseinatu eta bultzatzea izango dela, baliabide publikoen erabileran sinergiak sortzea dela eta ikasleen ongizatera eta garapenera bideratutako ekintzak gauzatzea dela aipatzen denean, interpretazio malgu baten bidez, eskumen-titulu antzeko bat sortu dela esan genezake, betiere, erregelamendu-garapenak zehaztutako eskuduntza propioen zain.

Hezkuntza-kontseiluen «osaera» udaletan eragina duten hezkuntza-gaiak udalerriko herritarrei zabaltzeko tresna gisa erabil daiteke. Hainbat eragile sartzeak —hala nola familien, irakasleen, ikasleen, administrazioen eta beste gizarte-eragile batzuen ordezkariak— hezkuntza-sistemaren ikuspegi integralagoa bultzatu dezake, eta denboran iraunkorrakoak diren adostasunak sortzen lagundu dezake. Aniztasun horrek, gainera, egonkortasun handiagoa ekar dezake, eta tokian tokiko hezkuntza-proiektuak finkatu, epe luzerako ikuspegiarekin, estrategiak etengabe alda ez daitezten administrazioen edo koiuntura politikoen arabera.

Azken gogoeta gisa, mahai gainean jarri behar da hezkuntza-kontseiluak elkarrizketa- eta adostasun-gune gisa «instituzionalizatzer» iritsi daitezkeela, erregelamendu-garapenarekin edo garapenik gabe. Izan ere, tokian tokiko adostasunak Eusko Legebiltzarrean lortutakoak bezain garrantzitsuak edo garrantzitsuagoak izan daitezke. 17/2023 Legearen erregelamendu bidezko garapenak markatuko du zer, zertarako eta nola garatu ahal izango den «hezkuntza-proiektu komunitarioen» kategoria juridikoa. Hezkuntza-proiektu komunitarioak diseinatzeko eta proposatzeko aukerak, haien osaera zabaltzearekin batera, udal-gizartea hezkuntzan gehiago inplikatze eta akordioak lortzeko giltzarri bilakatu daitezke. Hala ere, haien arrakasta eragileek taldean lan egiteko eta helburu komun baten alde lagapenak egiteko duten borondatearen araberakoa izango da.

5. Erreferentziak

- Alaez, B. (2024). Comentario al artículo 27 de la CE. In A. Saiz eta R. Bustos (zuz.), *Comentarios a la Constitución Española. En memoria de Pablo Pérez Tremps* (579-599. or.). Tirant lo Blanch.
- Alvarez, L. (2012). Dilemas jurídicos en la educación en una Europa multicultural: Formar en el pluralismo o en la tradición cultural occidental. *Fundamentos: Cuadernos monográficos de teoría del estado, derecho público e historia constitucional*, 7, 393-427.
- Bilbatua, M. (2022). Hezkuntza sistemaren gobernantza: udalen eta komunitatearen papera. Hezkuntza akordioa. *Hik hasi: euskal heziketarako aldizkaria*, 273, 32-33.
- Boeren, E. (2019). Understanding Sustainable Development Goal (SDG) 4 on quality education from micro, meso and macro perspectives. *International Review of Education*, 65, 277-294.
- Castillo, R., Hernandez-Castilla, R., eta Martinez, J. (2024). La Unión Europea frente a la Agenda 2030: Desafíos de la educación. *Tarbiya, Revista de Investigación e Innovación Educativa*, 51, 37-54.
- Cotino, L. (2012). *El derecho a la educación como derecho fundamental. Especial atención a su dimensión social prestacional*. CEPC.
- De Groot, G.R. (2024). The system of protection of regional or minority languages within the Council of Europe. *Polissema, Revista de Letras do ISCAP*, edizio berezia, 55-86.
- Egile Asko (Aierdi, A., Bilbatua, M., Bonal, X. eta beste batzuk) (2024). *EAEko Hezkuntza Legea. Biharamunerako koordenatuak*. 36. monografikoa, Hik hasi: Hezkuntza eraldatzeko.
- Gonzalez, M.I. (2024). Comentario al artículo 149 de la CE. In A. Saiz eta R. Bustos (zuz.), *Comentarios a la Constitución Española. En memoria de Pablo Pérez Tremps* (2.010-2.019. or.). Tirant lo Blanch.
- Iztueta, P. (2003). Euskal Eskola Publikoaren Legea 10. Urteurrenean. *Hik hasi: euskal heziketarako aldizkaria*, 79, 8-15.
- Lasagabaster, I., eta Urrutia, I. (2009). Protocolo Adicional Número 1 al Convenio: Artículo 2. Derecho a la instrucción. In I. Lasagabaster (zuz.), *Convenio Europeo de Derechos Humanos: Comentario Sistemático* (800-821. or.) [2. ed.]. Civitas.
- Meix, P. (2014). *El derecho a la educación en el sistema internacional y europeo*. Tirant lo Blanch.
- Milian i Masana, A. (2007). Los límites jurídicos existentes para la configuración del sistema lingüístico escolar del País Vasco y vías para la reforma del sistema vigente. *RVAP*, 79, 71-105.

- Ovey, C., eta White, R. (2006). *The European Convention on Human Rights*. Oxford University Press.
- Palacin, I. (2017). Ikastolen Elkartea: example of effective transfrontier cooperation under the European Language Charter. *Oñati socio-legal series*, 7(6), 1343-1370.
- Pasquali, L. (2013). ¿El numerus clausus en las universidades puede ser contrario a los derechos humanos? *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, 45, 719-739.
- Perea, J.A. (2024). La protección internacional de la diversidad lingüística y de las lenguas minoritarias como factor de integración de la identidad constitucional en la Unión Europea. In J. Fernández-Miranda eta O. Godoy (zuz.), *Identidad constitucional de la Unión Europea y elemento cultural* (217-244. or.). Tirant Lo Blanch.
- Ramirez De Okariz, I. (2017). Gertuko erakundeak hezkuntza-sisteman parte hartzen: kultura-ondarearen transmisioa. *Uztaro*, 100, 79-110.
- Sarmiento, D. (2020). *El derecho de la Unión Europea*. Ediciones Jurídicas y Sociales.
- Urrutia, I. (2006). Lengua y derecho a la educación en la Comunidad Autónoma del País Vasco: reflexiones jurídicas sobre el tránsito hacia un nuevo modelo. *Revista de llengua i dret*, 46, 279-316.